

PLANTAR LAS URNAS



*Hona hemen Landa Plataforma osatzen duten erakundeak: COAG (Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Erakundeen Koordinakundea) - Landa Inguruneko Langileen Sindikatua - Landa Mugimendu Kristaua - Landa inguruneko Gazte Kristauen Mugimendua - Lurraren Lagunak, Ekologistak Martxan, VSF. Elikaduraren Justizia Globala - Mundubat Fundazioa - GRAIN Fundazioa - Global Nature Fundazioa - Entrepueblos - Ekintza Solidarioko Taldeak, Paulo Freire Landa Unibertsitatea - Nekazarien Eskolak - CECU (Espainiako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Konfederazioa) - Periferies Elkarte - CERAI - Acsur Las Segovias - Herrialdeko Acsur las Segovias, Valencia - Emaus Fundazioa - Tierra de campos Taldea - SEAE (Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarte) - Sodepaz - Xarxa de Consum Solidari - Afrika-Europa Sarea.*

## HAUTESTONTZIAK LANDATUKO DITUGU

### LANDA-MUNDU BIZIA ETA ELIKADURAREN BURUJABETZA DEFENDATZEN DITUEN PROGRAMA POLITIKOAREN ALDE

Hementxe gaude, hiri handian. Berton, hain zuzen ere, gure herrietatik emigratu behar izan zuten herritar asko eta asko bizi dira.

Hementxe gaude, estatu espainoleko landa-inguruneko bizimodua osatzen duten era guztietako lurralde eta eskualdeetan jarraitzen dugun biztanlearen %20 horren ahotsa izateko.

Hementxe gaude, abenduaren 20ko hauteskundearen ostean gobernatu nahi gaituzten alderdi politikoei gogoratzeko jende gutxi garen arren estatu espainoleko lurraldeen %80 zaintzen ditugula, elikagaiak ekoizten jarraitzen dugula, basoak zaintzen ditugula, nekazaritzaren zein paisaiaren aniztasuna babesten dugula eta landa-erkidegoetako kulturei nahiz tradizioei eusten diegula. Hori guztiori funtsezkoa da gizakion arazo larriei aurre egiteko. Euren artean, gainera, elikaduraren krisia, klimaren krisia eta energiaren krisia nabarmendu behar dira.

Hementxe gaude, geure arazoak, geure zailtasunak eta geure proposamenak partekatu nahi ditugulako hiritarrek. Horrez gain, gogorarazi egin nahi diegu gure asmoak eta eskariak ere oso garrantzitsuak direla gizarte osoarentzat. Hori dela eta, aliantzak sortu behar dira haiekin, lurralde-oreka lortzeko eta lankidetzarako, merkaturaketarako, borroketarako eta interes batuetarako modu berriak ezartzeko.

Hementxe gaude, gogaituta gaudelako. Izan ere, alde batera uzten gaituzte, eta ez gaituzte ezertarako kontuan hartzen. Gogaituta gaude, oraindik ere landa-mundua trukerako moneta delako botere ekonomiko handien onurarako bakarrik diren politikak abian jartzeko orduan. Eredu hori ez da egokia guretzat, horren ondorioz landatik hirirako exodoa gertatzen delako, tokiko nekazaritza zein abeltzaintza desagiten direlako, ekoizpen-sistema jasangarriak hondatzen direlako,

bizitza duina eskaintzen digun ekonomia dibertsifikatua desagertzen delako eta elikadura txarrarengatiko arazoak sortzen direlako.

Europar Batasuneko Nekazaritza Politika ezartzean, prozesu hori larriagotu egiten da. EBNP bera nekazaritza-ereduaren aldaketa sustatzen duten tresnetakoa izan behar da. Ustiategi txikien familia-nekazaritza ezarri beharra dago, nekazariak landa-ingurunean geratu daitezten, gazteak inplikatu daitezten, ingurumena errespetatzen duen nekazaritza-eredu jasangarria ezarri dadin, biztanle guztiei kalitateko elikagaiak eskaintzen dizkien eredia izan dadin eta, azken batean, elikaduraren burujabetzarantz garamatzan nekazaritza izan dadin. Hementxe gaude, gure politikariek inoiz entzuten ez digutelako eta baldintzarik gabeko botoa eskatzen digutelako gure proposamenak kontuan hartu gabe.

Landa Plataformatik, itun politiko berria lortu nahi dugu, etorkizuna daukan landa-mundu bizia bermatzeko, despopulazioa geldiarazteko eta arduraz zein jasangarritasunez lan egiteko eta ekoizteko. EZEZKO biribila eman nahi diegu gure lurraldeetan garatutako jarduketei eta politikei:

- Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Jasangarritasunari buruzko Legerik EZ, auzo-batzarren eta udalerrri askoren desagerpena sustatzen du-eta.
- Transgenikorik EZ.
- Ozeano Atlantikoaz Bestaldeko Merkataritzarako eta Inbertsiorako Itunik EZ. TTIP.
- Europar Batasuneko gaur egungo Nekazaritza Politikarik EZ, ezta nekazaritza industrialari eta nekazaritzako elikagaigintzako enpresa handiei bakarrik laguntzen dien politikarik, araurik eta legerik ere.
- Landa-inguruneke zerbitzu publikoen kalitatearen galerarik EZ.
- Nekazaritza intentsiborako eredurik EZ, elikagaien merkatuak kontrolatu eta menderatzen dituzten multinazionalen eta agronegozioaren menpe dagoelako eta instituzio publiko gehienek inolako kezkarik gabe babesten dutelako.
- Frackingik EZ, ezta landa-ingurunea suntsitzen duen beste era bateko ustiapenik ere.
- Lurraren zein uraren inguruko espekulaziorik EZ, ezta nekazaritzarako gainazalaren galerarik ere.

Horren guztiorren ondorioz, ez dago gure herrientzako garapen harmoniatsurik lortzerik. Horrez gain, gure eta gure seme-alaben etorkizunari ere jartzen zaizkio oztopoak.

Landa Plataformaren ustez, ezinbestekoa da landa-mundua bizirik egotea, gizarteak giza aurpegia eduki dezan eta jende guztiarentzako etxe bateratu osasungarria izan dadin. Edonola ere, hori lortzeko nahitaezkoa izango da honako hauxe egitea:

- Landa-inguruneke despopulazioaren fenomeno geldiaraztea.
- Nekazari eta abeltzain gehiagoren desagerpena eragozte.
- Zerbitzu publikoen desagerpena geldiaraztea eta desagertutako zerbitzuak berriro ezartzea.
- Lurraren inguruko espekulazioa geldiaraztea.

Biztanleen eta lurraldeen artean behar-beharrezkoa den oreka berreskuratzeko, honako honexen aldeko legeei buruzko erabaki politikoak hartu beharko dira neurri handi batean:

- Landa-lurraldeen ezaugarri eta premietara egokitutako osasun publikoa.
- Herri bakoitzean egon beharreko kalitateko eskola.
- Nekazaritzako eta landa-inguruneko kulturak birbaloratzeko moduko baliabideak.
- Garraio publikoa erabiltzeko aukera: trenak, autobus-lineak...
- Adinekoentzako banakako atentzioa, betidanik euren bizilekua izan den herrian geratzeko aukera izan dezaten.
- Emakumeentzako laguntza, sare sozial zein ekonomikoari agerian ez dagoen ahaleginaz eusten diotelako eta mendekoen zainketari ia-ia aukerarik eta babesik gabe aurre egiten diotelako.
- Herrietan bizi nahi duten gazteei eskaini beharreko etxebizitza-aukerak.

Landa Plataformaren iritziz, herrietako garapen integral bezain jasangarria lortzeko, ezinbestekoa da lehen sektoreak ekonomian, gizartean eta ingurumenean daukan balioa berreskuratzea eta lurra zuzenean landu eta herrietan bizi diren nekazariak eurek kudeatzea. Horretarako, honako honexen aldeko apustu irmoa egin beharko da:

- Nekazarien tokiko nekazaritza.
- Nekazari berriei lurra eskuratzeko aukera ematen dieten politika publikoak.
- Nork bere haziak ekoizteko eta ugaltzeko eduki beharreko eskubidea.
- Uraren kudeaketa publikoa, baina merkatutik eta azpiegituretako zein energiako negozio handietatik aldentuta.
- Nekazaritzako elikagaien eraldaketarako tokiko enpresen sorrera eta eskala handiko ekoizpen industrialetik bereizitako kontrol higieniko sanitarioarako arautegien ezarpena.
- Tokiko merkatuen eta elikagaiak banatzeko eta saltzeko sistema zuzenen sustapena.
- Elikadura-katearen arauketa zorrotzagoa, eragile guztien zeregina orekatzeko eta ekoizpen-sektoreak bere produktuengatik bidezko prezioak kobratzeko.
- Hurbileko elikagaiak erosteko politika publikoak.

Horretarako, argi eta garbi dago elikaduraren burujabetzaren alde egin beharra dagoela, hau da, herri guztiek nekazaritzako elikagaigintzako politikei buruz erabakitzeke duten eskubidearen alde.

Madrilan, 2015eko abenduaren 3an